

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak abenduaren 23ko 18/2008 Legean, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoan, jasotako diru-laguntzak dira. Laguntza horiek ezusteko gertakari batek eta luzaroan diru-laguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzea dute helburu. Pertsonen bizitzan zehar, jakineko momentu batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Premiazko ondasunak ez izatera edo gabetasuna dakarten egoerak ekiditeko baliabide aringarri bezala erabiltzen dira GLLak.

LEGE EREMUA

-18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa

-4 /2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

-16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko 4/2011 Dekretua aldatzen duena

-2021ko martxoaren 10eko AGINDUA, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2021. urtean gehienez emango diren diru kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2021.urterako dagokion aurrekontu muga.

GGL 2022ko urtarrilaren 17ko ZIRKULARRA

Eusko Jaurlaritzak ez du argitaratu 2022ko agindua baina zirkularra bidez, 2022ko aginduaren aurrerapena egin du laguntzak bidera daitezen.

Zirkular honetan eta 2022.urteari dagokionez, aipatzen dena zera da:

2021eko ekitaldiko kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoak mantenduko dira, hurrengo kontzeptuetarako izan ezik, horiek igoera izango baitute:

- 2.1.a artikuluan zehaztutako alokairu-gastuengatik:

- o Gehienez ere hilean 275 euro 2.1.a.a.1 artikuluan, aurreko ekitaldiko 250 euroen aldean.

- o Gehienez ere 137,5 euro hilean 2.1.a.a.2. artikuluan, aurreko ekitaldiko 125 euroen aldean.

- o Gehienez ere 137,5 euro hilean 2.1.a.a.3. artikuluan, aurreko ekitaldiko 125 euroen aldean.

- o Gehienez ere hilean 275 euro 2.1.a.a.4. artikuluan, aurreko ekitaldiko 250 euroen aldean

- 2.1.c artikuluan zehaztutako energia-gastuengatik, urteko 1.500 euroko gehieneko mugarekin, aurreko ekitaldiko 900 euroko mugarekin, eta, bi bizikidetz-unitateen kasuan, urteko 750 euroko gehieneko mugarekin, aurreko ekitaldiko 450 euroko mugarekin.

Alokairuaren kontzeptuaren gehieneko zenbatekoaren igoera EPOak, EPEk eta Gaztelagunek izan dutenaren antzekoa da.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da energiaren kontzeptuan gehieneko inportazioa handitzea, etxe asko jasaten ari diren pobrezia energetikoa arintzeko. Aurten, halaber, Bonu Sozial Termikoarekin osatuko da, eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari ere dagokio bonu hori ordaintzea, eta ekitaldi honetarako zehaztutako prozedura izan bezain laster jakinaraziko zaigu.

Oiartzunera bideratuko den aurrekontua 110.561,00€koa izango dela adierazi du.

Ahalik eta lasterren onartuko da GLLen 2022ko Agindua, une honetan izapidetzean dagoena, baina bitartean, zailtasun ekonomikoak dituzten hainbat herritarrek ezin dituzte oinarritzko beharrak ase, hau da alokairua, argindarra, elikadura gastuei aurre egin. Hori dela eta zirkularraren baitan 2022.urterako irizpideak hauek izango lirateke:

Laguntzak gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

1.– 2022rako, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetza-unitate bakoitzeko (hemendik aurrera, BU) honako hauek dira:

a) Alokairu-gastuak:

a.1.– Errentari bakarrek etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakar batek beste batekin alokairuan hartu badu edo beste bati alokairuan utzi badio, gehieneko laguntza 275 eurokoa izango da hilean, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo beste batekin batera alokairuan hartzeagatik edo beste bati alokairuan emateagatik ordaindutako % 70.

a.2.– Etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago edo azpierretekin egin badira, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean den araudian xedatzen duenarekin bat etorritik, eta bizikidetza-unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetza-unitaterentzat ezarritako muga hileko 137,5 euro izango da, baina biak batuta ezingo dute etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80 gainditu.

a.3.– Etxebizitzan ostatu- edo apopilotza-kontraturik egonez gero, kontratu mota hori duen eskatzaile kopuruaren muga bi izango da, aurrekoarekin koherente izanik, eta laguntzaren muga hileko 137,5 euro izango da.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, muga 275 euro izango da hileko. BUren muga ez da bi izango, establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera izango da.

b) Gizarte larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 euro gehienez hileroko, ezingo delarik da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren % 70 gainditu.

c) Energia-gastuengatik, argindar-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eraginak, gehienez 1.500 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 750 euro bakoitzari.

d) «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoen eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 925 euro bakoitzari.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtean. Bi BU baldin badira, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.

f) Ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuek, 900 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari. Kontzeptu honetan sartzen dira uraren, zaborraren eta estolderiaren gastuak eta hiri- zein landa-eremuko ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, jabeekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere.

g) Bizikidetza-unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarritzko premiei buruzko gastuak, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek ez badituzte gastu horiek estaltzen, urtero gehienez 1.850 euro.

h) Aurretiaz egindako zorpetze-gastuengatik, 3.000 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 1.500 euro bakoitzari.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, a), b), c), d), e), f) eta g) idatzi-zatietan aipatutako kontzepturen batengatik lehendik sortu zorreatatik gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira, kasu bakoitzean, aipatu idatzi-zatietan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak baino handiagoak.

DIRU-ATALA:

1 1001 480 231 30 01 2022 GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Diru-atal honetan hasiera batean 90.000,00€ bideratu dira , 2021. Urtean laguntza hauetarako guztira 155.495,00€ bideratu ziren. 2022. urtean Jaurlaritzak 110.561,00€ ipiniko ditu eta Oñartzungo Udalak 30.000,00€ .

PROPOSAMENA:

2021ko martxoaren 10eko AGINDUA betetzea irizpide hauek aplikatuz:

Edozein laguntza tramitatzeke iazko laguntzen justifikazioa eguneratua egon beharko du, hala ez bada laguntzak ez dira bideratuko egin bitartean.

1. COVID-19ak hainbat egoera larri sortu ditu herritarrengan. Egoera hauek giza bazterketa arriskuan edo bazterketa eta larritasun ekonomikoko egoeran daudenengan areagotzen dira eta elikadura eta etxebizitza beharrei aurre egiteko zailtasunak sortu ditu

Egora hau kontutan hartuta orokorrean kontzeptu bakarra onartuko da eta egoeraren balorazioaren baitan elikadura eta /edo energia kontzeptuak onartuko dira. ALOKAIRUA edo ETXE MAILEGUA izango dira lehentasuna izango duten kontzeptuak, beharrezkotzat baloratzen bada elikadura eta/edo energia kontzeptuak gehituz .

Elikadura beharrei aurre egiteko, irizpide hau kontutan izango da:

LAGUNTZA KOPURUA KIDE KOPUAREN BAITAN

KIDE KOPURUA	HILEKO LAGUNTZA	URTEKO GEHIENEZKO LAGUNTZA
KIDE BAKARRA	225€/HILEAN	1850,00€ / URTEAN
2 KIDE	275€/HILEAN	1850,00€ / URTEAN
3 KIDE	325€/HILEAN	1850,00€ / URTEAN
4KIDE EDO GEHIAGO	350€/HILEAN	1850,00€ / URTEAN

2. Alokairu kontratu berri baten aurrean , agentzi gastuak, fidantza eta lehen hilabetea ordainduko dira , topea kontutan izanik .

3. Gizarteratze prozesuetan edo familia esku hartze programetan parte hartzen duten onuradunek , alokairua edo mailegu, elikadura eta energia kontzeptuz gain beste kontzeptu gehiagotan laguntza jasotzeko aukera izango dute beti ere Gizarte Zerbitzuen txostenaren arabera.

4. Laguntzaren gehiengo iraupena urte betekoa izango da (Urtarriletik -Abendura). Ekaina-Abuztua bitartean jarraipen elkarrizketa beharrezkoa izango da laguntzak kobratzen jarraitzeko. 60 urtetik gorakoentzat izan ezik.

5. 2022. urtean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak, Bizikidetza Unitate bakoitzeko

(hemendik aurrera, BU) eta gastu espezifiko bakoitzerako, honako hauek dira:

a) Alokairu-gastuak:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakar batek beste batekin alokairuan hartu badu edo beste bati alokairuan utzi badio, gehienezko laguntza 275 eurokoa izango da hilean, eta ezingo du gaintitu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo beste batekin batera alokairuan hartzeagatik edo beste bati alokairuan emateagatik ordaindutako % 70.

a.2.– Etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago edo azpierreantak egin badira, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean den araudian xedatzen duenarekin bat etorritik, eta bizikidetzak-unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzak-unitaterentzat ezarritako muga hileko 137,5 euro izango da, baina biak batuta ezingo dute etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80 gaintitu.

a.3.– Etxebizitzan ostatu- edo apopilotza-kontraturik egonez gero, kontratu mota hori duen eskatzaile kopuruaren muga bi izango da, aurrekoarekin koherente izanik, eta laguntzaren muga hileko 137,5 euro izango da.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, muga 275 euro izango da hileko. BUren muga ez da bi izango, establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera izango da.

b) Gizarte larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 euro gehienez hileroko, ezingo delarik da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren % 70 gaintitu.

c) Energia-gastuengatik, argindar-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eraginak, gehienez 1.500 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 750 euro bakoitzari.

d) «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoen eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 925 euro bakoitzari.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtean. Bi BU baldin badira, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.

f) Ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuek, 900 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari. Kontzeptu honetan sartzen dira uraren, zaborraren eta estolderiaren gastuak eta hiri- zein landa-eremuko

ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, jabekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere.

g) Bizikidetzak-unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarritzko premiei buruzko gastuak, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek ez badituzte gastu horiek estaltzen, urtero gehienez 1.850 euro.

h) Aurreko kontzeptuetan aurretiaz egindako zorpetze-gastuengatik, 3.000 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 1.500 euro bakoitzari.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, a), b), c), d), e), f) eta g) idatzi-zatietan aipatutako kontzepturen batengatik lehendik sortu zorreetatik gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira, kasu bakoitzean, aipatu idatzi-zatietan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak baino handiagoak.

6 . AHO KONPONKETEN KASUAN

- Osasun arazo larria ez bada, abenduan tramitatuko dira eskaera hauek aurrekontuaren

- baitan.
- 100€ edo gutxiagoko aurrekontuetan, 100% ordainduko da
 - Ez dira estrakzioak kubrituko.
 - Ez dira ortodontzia mantenuak kubrituko.
 - Osasunarekin zerikusia duen guztia baloratuko da, ez dira estetika gaiak baloratuko.
 - 100 € baina aurrekontu handiagotan , aurrekontuaren %75 ordainduko da(gehienez 1.850€ urtean)

7. BETAURREKOEN EROSKETAN ETA AHO KONPONKETA kasuetan, ezin izango da behin laguntza onartuta, hiru urteko epean kontzeptu berdinean laguntza eskatu, non eta ez dagoen sendagile baten agiria beharra argudiatuz.

8. Onuradunen betebeharrak : 4/ 2011 Dekretuan, urtarrilaren 18koaren 7. artikuluan azaldutakoak aplikatu behar dira.

9. Justifikazioa: 4/ 2011 Dekretuan, urtarrilaren 18koaren, 22. artikuluan azaldutakoa aplikatu behar dira.

10. Udalak, ez ditu murrizketarik aplikatuko eta 2022. urtean argitaratutako aginduaren irizpideak errespetatuko ditu, beti ere onartutako aurrekontuaren baitan.